



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 24
Urtea/Año 2014
Ekaina/Junio

Ikasturte- eta Maila-amaierako emanaldiak. Musikaren Europar Eguna.

Ekainean zehar, Musika Eskolako espezialitate desberdinetako irakasleek antolaturiko entzunaldietaz gozatzen jarraituko dugu. 17an, ikasturte-amaierako emanaldi nagusia izango dugu. Algortan izango da, Biotz Alai plazan. Emanaldiak bere "janaurrekoa" izango du Metroko Plazatik Biotz Alai Plazaraino egingo den kalejirarekin. 18:15ean bilduko gara bertan, 18:30ean martxan jartzeko. Biotz Alai Plazan, Eskolako talde desberdinek interpretaturiko musikaren historian zehar bidaiatzera gonbidatuko gaituzten musika-konposizioen bilduma entzungo dugu. Izaera berezia duten Maila-amaierako errezitaldiak aipatu nahi ditugu. Emanaldi garrantzitsuak, protagonistak gurekin hezkuntza-ziklo bat amaituko duten ikasleak direlako. Ospatzeko unea da. Lehen heldutasun musikal bat lortu dute eta gurekin partekatuko dute. Errezitaldi hauek, datozen ekainaren 18, 19 eta 20an izango dira, Entzunaretoan. Denok zaudete gonbidatuta. Ekainaren 18an, Musikaren Europar Eguna dela eta, Eskolako Musika-bandak, Biotz Alai Abesbatzarekin batera, kontzertua eskainiko du Biotz Alai Plazan 20:00etan. Zoazte gozatzerara.

Agur ikasturteari

2013-14 amaitzera doa. Beste ikasturte bat zuekin, eta alderantziz. Gure Eskola sendotuz goaz eta arro gaude, batez ere egunegun handituz doazen zuen ibilbidea eta heldutasun musikala ikusten ditugulako. Eskerrik asko zuen konfiantzagatik.

Asko zarete matrikula gurekin berritu duzuenak. Ekainean zehar zuekin harremanetan jarriko gara ikasturte berrirako ordutegia eskaintzeko. Beste batzuek berriz ez duzue jarraituko. Zuen esperientzia "Andrés Isasi" Musika Eskolan positiboa izan dela espero dugu. Badakizue hemen duzuela zuen etxea, nahi izanez gero musika-ikasketak aurrerago berrartzeko.

Antolatu ditugun jarduera desberdinak zuen gustokoak izan direla espero dugu: errezitaldiak Musika Eskolan bertan eta Eskolatik kanpo, Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan izandako esperientzia, gure bisitaldiak musika-irakaskuntzako beste zentroetara, Neguko Bidaia, kontzertu didaktikoak, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuetara joan ahal izana... eta ikasturte honetako ibilaldia errepasatzerakoan seguru gogoratzen duzuen eta abar luze bat.

Joan den ikasturtean, antolatu genuen konbo txikiaren berri eman genizuen. Bikain jarraitzen du bere ibilera. Datorren ikasturterako, haur-abetesbatza estreinatuko dugu. Zorte ona opa diogu bere ibileran. Urte askotarako!

Musika Eskola osatzen dugunok gure eguneroko zereginaren inguruan hausnartzen jarraitzen dugu, zerbitzurik hobereana eskaintzeko asmoz. Bi ikasturte barru, Algortan ere izango gara. Horretarako prestatzen ari gara. Emango dizuegu honen berri.

Udaz eta aisialdiaz gozatu. Gogoratu musika beti dela bidaiatzeko lagun egokia. Ez ahaztu etxean!

Gogoratu:

Hirugarren hiruileko honetako jarduerak ekainaren 20an amaituko dira.

Irailaren 8an emango diogu hasiera datorren ikasturteari. Gure web-orrian kontsulta dezakezu 2014-15 ikasturtearen eskola egutegia. Irakasleak zurekin harremanetan jarriko dira datorren ikasturterako ordutegia adosteko.

Hileko egutegia

Ekaina

l	m	x	j	v	s	d
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

- Jai-egunak
- Eskolaren jarduerak
- Jarduerak jai-egunetan

Agenda Ekaina

Ekainak 4: Gitarra emanaldia. 18:30ean Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan.

Ekainak 5: Piano emanaldia. 19:00ean Musika Eskolako Entzunaretoan.

Ekainak 6: Perkusio emanaldia. 19:00etan Musika Eskolako Entzunaretoan.

Ekainak 9: Piano emanaldia. 15:30ean Musika Eskolako Entzunaretoan.

Ekainak 12: Bertako tresnen ikasleen emanaldia. 19:15ean Musika Eskolako Entzunaretoan.

Ekainak 13: Musikoterapia ikasleen entzunaldia Musika Eskolako Entzunaretoan.

Ekainak 17: Ikasturte-amaierako entzunaldia. 19:00etan Biotz Alai Plazan.

Ekainak 18: Maila-amaierako entzunaldia. 19:00etan Musika Eskolako Entzunaretoan.

Ekainak 18: Eskolako Musika-bandaren kontzertua. 20:00etan Biotz Alai Plazan.

Ekainak 19: Maila-amaierako entzunaldia. 19:00etan Musika Eskolako Entzunaretoan.

Ekainak 20: Maila-amaierako entzunaldia. 19:00etan Musika Eskolako Entzunaretoan.